

Udal talde politikoaren iritzia



GETXO = JASANGARRITASUNA

Horixe da Getxorentzat nahi duguna: jasangarritasuna ingurumenean, jasangarritasuna gizartean eta jasangarritasuna ekonomian. Getxon bizi-proiektu bat garatu nahi dugu.

FB orria: EAJ PNV Getxo / EAJ PNV
Instagram: @eajpnvgetxo



NAGUSIEN ETXE BERRIA ROMON



EAJko batzuek erabat ahaztuta daukate Errekaganeko gunea eta, hortaz, ekiteko eta gune hori berreskuratzeko unea heldu dela deritzogu. Horretarako, beste Nagusien Etxe bat eraikitzea nahi dugu, "Errekagane Berri" deituko dena eta erabiltzaileen gozamen eta aisialdirako berdegune handiak izango dituena. Hau ere egongo litzateke Romon, metroko geltokitik gertu mugikortasuna bultzatzeko, Gobela

ibaitik gertu, eta inguruko berdegunea Areetaraino doan pasealekuari lotuta egongo litzateke. Horrez gain, konprometitzen gara hura egokitzea eta gune horretan adinekoentzako egoitza baten proiektua egiteko; egunerokotasunaz gozatzeko berdegune handiak egongo lirateke bertan, bai eta auzokide nahiz ibiltariak gozatzeko parke baten berezko prestazioak ere. #esnatuGetxo

ehbildu

OSASUN SISTEMA PUBLIKOA ETA KALITATEZKOAREN ALDE!

Getxoberri hau da legegintzaldi zail honetako azkenengoa. Lau urte hauek ez dira batere errazak izan: Udal Gobernuak gehiengo absolutuarekin gobernatu du, inposaketaren bidez, eta ez du inolako asmorik izan akordioak lortzeko oposizioko alderdiekin. Hala ere, EH Bildutik proposamenak egin eta gobernuaren jarduna kontrolatzen jarraitu dugu, noski.

Baina zalantzarik gabe, legegintzaldi honetan osasun-krisiak ere zeresan handia izan du, gure bizitzak hankaz gora jarri zituelako. Pandemiak irakaspén ugari utzi zizkigun, eta horien artean, garrantzitsuenetakoa gure ustez: behar-beharrezkoa dugu osasun-sistema publikoa eta kalitatez-

koa. Osasun langileek eta EH Bilduk berak ere hainbatetan salatu dugu, erresidentziekin ezarri duten eredu pribatizatzailea osasun-sistemarekin ere egin nahi dutela: azkenean ambulatorioetara kreditu txartelarekin joan beharko gara, osasun-txartelarekin joan beharrean.

Eta pribatizazio honen guztiaren ondorioak ikusten ari gara jada: amaierarik ez duten itxaron zerrendak, lehen arreta deuseztatzen ari dira, osasun langileen lan-baldintza prekarioak...

Ez izan zalantzarik, EH Bildutik borrokan jarraituko dugu osasun sistema publiko eta kalitatezkoaren alde!

PSE-EE
PSOE

FAMILIARTEAN GOZATZEKO ETA HAURREN AISIALDIRAKO GUNEA GETXON



Alderdi Sozialistako kideok uste dugu herritarren gozamen eta aisialdirako toki gehiago egon behar direla Getxon. Horrexegatik, proposatu nahi dugu familiartean gozatzeko eta haurren aisialdirako gunea bat sortzea (Getxo Asia), haurrak dituzten familientzat, jolasguneak nahiz

kultur jarduerak izan ditzaten eta egun euritsuetan ere batera egon daitezten. Proposatutako ekipamendu berria Errekaganen (Gobela) egongo litzateke, eta getxoar gazteei zuzendutako beste gunea bat egongo litzateke bertan (Gazte Gela), gelak erreserbatuz batera lan egin dezaten.



M28AN BOZKATU, GETXO ERALDATZEKO

Igande honetan, hautetsontzietan erabakiko da Getxoren etorkizuna. Herritar guztiak bozkatzera joan daitezten animatu nahi ditugu, etxean gertatu ez daitezten euren harri-koskorra ekarri dezaten udalerrira hobe eraikitzeko. **Boto guztiak direlako garrantzitsuak.** Getxok eraldaketa nabarmena behar du premiaz: etxebizitza duina eta hezkuntza publikoaren izateko eskubidea bermatu behar du;

hirigintza eta mugikortasun jasangarriak sustatu behar ditu; emakumeen, familien, adinekoen eta LGTBI kolektiboaren eskubideak babestu behar ditu. Auzokideak entzun behar ditu. Irisgarriak eta parte-hartzaileak diren kultura eta kirola sustatu behar ditu. Getxok aldaketa bat behar du, eta aldaketa hori zure esku dago. **M28an, bozkatu.** Inork ez diezazula esan ezin daitekeela etorkizuna aldatu.